

Kaixo ama:

Aspaldian nola sentitzen naizen kontatzeko beharra daukadanez eta telefonoz ezin dugunez hitz egin berandu baita, eskutitz hau idaztea pentsatu dut.

Badakit egunero egoten garela, baina beti zerbait egiteko beharrean gara eta ez dugu hartzen denborarik guretzat, alegia, gutaz hitz egiteko, gure egoeraz.

Egia da askotan eskertzen dizula nire laguntza, zuregatik egiten dudana guztiagatik, bestetan berriz errieta besterik ez didazu egiten hala nolako eguna duzunean.

Gauzak horrela, urteak aurrera doazen heinean, barre egiten ikasi dugu, bai egun onetan, bai egun txarretan ere, zure gaixotasunak erakutsi baitigu pazientziaz begiratzen bizitzari, amorrugabe, ezintasunarekin musean egiten, alegia.

Horrelakorik ere ikusi behar genuenik! Lau urte pasa beharra izan dugu, gaixotasuna behinik behin kontrolatzeko, edo hobeto esan da, ezagutzeko. Ez dira urte errazak izan, askotan ibili bainaiz neure onetik aterata, ezin ulertuz zer gertatzen zitzaien. Beste batzuetan berriz, lur jota zu horrela ikusita, zure gorputza eta burua ezin menderatuta, barruko korapiloa gero eta handiagoa egiten zitzaidala, zuri laguntzeko ahalmena ez izateko beldurrez; nire pertsona desagertzen zen bitartean, zeharo akituta.

Baina zuk erakutsi bezala, zazpi aldiz erortzen bazara, jaiki zortzi aldiz eta segi, ez etsi, eta gaur egun, eskerrak ematen dizkizut atzeneko lau urte hauetan nire bizitzako ikuspegia aldatu didazulako erabat, zurearekin batera.

Ez dakit zenbat urte igaroko ditugun elkarrekin, baina orain bai! prest gaude bidaia horretarako. Eskerrik asko ama!

Marikruz Alberdi (2015). EGAko idazlana "Amari eskutitza"